

Espainiako Bigarren Errepublikaren garaia hezkuntza berrikuntzari begira

Igor Camino Ortiz de Barrón
igor.camino@ehu.es

Ainara Olarra Villanueva
ainara.olarra@ehu.es

Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila
Gasteizko Irakasle Unibertsitate Estola
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO HITZAK: Bigarren Errepublika. Eliza. Hezkuntza. Irakaskuntza.

1. SARRERA

Artikulu honen bidez Espainiako hezkuntza arloan berrikuntza eta ilusioaren argia piztea ahalbideratu zuen garai adierazgarri bati erreferentzia egin nahi diogu, Bigarren Errepublika garaiari hain zuzen ere, 1931ko apirilaren 14ean aldarrikatu eta 1939ko apirilaren 1era iritsi arte garatu zena. Hezkuntza arloari begira, garai horrek bere baitan eduki zuen garrantzia, aurrera eraman nahi izan zuen erreformarekin lotu beharko genuke. Hala ere, aipaturiko garaian gauzatzeko aukerarik onena aurkitu zuen berrikuntza hori ez zen izan bapatean sortutako zerbait; aitzitik, azpimarratu behar dugu Errepublika garaian loratzeko aukera eduki zuten haziak aurreko mendearen bukaera aldean landatzen hasiak zirela.

Aurreko mende horretan, XIX.enean, Espaniak beste nazio batzuekiko eskaintzen zuen atzerapen irudia oso adierazgarria zen, eta horren inguruan birsortze beharra antzematen hasiak zirenak ere agertzen ziren; honen harira birsortzaile eta batez ere Irakaskuntzaren Institutio Librea hitz egitea beharrezkoa izango zaigu, batez ere horiek izan baitziren, aurreko paragrafoan adierazi dugun moduan, aldaketaren haziak ilusioz landatzen hasi zirenak.

Ilusio eta berrikuntza nahia erabakiorrak izango baziren ere, artikulu honetan zehar jorratu nahi dugun bidean ere agertuko zaizkigu aipaturiko

haziak ez loratzea ekiditen saiaturako zirenak; honekin lotuta, eta Bigarren Errepublikaren aldarrikapena gauzatu baino lehen, diktadura garai bati egin beharko diogu erreferentzia, Primo de Rivera jeneralaren diktadurari hain zuzen ere.

2. KRONOLOGIA: ESPAINIAKO BIGARREN ERREPUBLIKAREN INGURUKO GERTAKARI NAGUSIAK

Orain arte adierazitako bide hori jorratzeko gure asmoak aipatu besterik egin ez ditugunez, asmo horietan azpimarratu ditugun ardatz nagusiak eta horiekin lotutako beste gertakari batzuk denboralki ordenaturik erakusten dizkigun kronologia labur bat eskaintzea lagungarria izango zaigulakoan gaude:

- **1876:** Francisco Giner de los Ríos eta Unibertsitatetik kanporatuak izan ziren beste katedradun batzuek Madrilen Irakaskuntzaren Institutio Librea sortu zuten. Unibertsitatetik kanporatuak izatearen arrazoi nagusia Orovio Markesaren, orduko Fomento Ministroa, aginduei uko egitea izan zen. Agindu horietan irakaskuntzak Elizaren dotrinei egokitzeko beharra eta Errege berria zen Alfonso XII.aren arikiko atxikimendua erakustea eskatzen zitzaien; agindu horiek bete ez zituztenez, kanporatuak izan ziren. Madrilen sortutako Institutioa laster bihurtu zen askatasun intelektualaren adierazgarri nagusi, Espainian hurrengo hirurogei urteetan egongo ziren berrikuntza pedagogikoetan eragin garbia erakutsiz.
- **1881:** Ginerrek, Sagastaren lehenengo gobernaldi liberala aprobetxatuz, orduko Fomento Ministro zen Luis Albaredari instrukzio publikoan zenbait erreforma neurri proposatu zizkion; horien artean «Misio Ibiltariak»¹ sortzea.
- **1882:** Albaredaren Ministerioak Museo Pedagogikoa sortu zuen². Urte horretan ere lehen kongreso pedagogikoa antolatu zen; horretan Manuel Bartolomé Cossío-k partehartze esanguratsua eduki zuen, beren jardura herrixketan garatzen zuten irakasleen lana goraiatuz.
- **1883:** Cossío Museo Pedagogikoaren Zuzendari izendatu zuten. Museo horrek 1887tik aurrera «Museo Pedagogiko Nazionala» izena erakutsi zuen.

¹ Misio Ibiltariak ondoren, Museo Pedagogikoaren sorrerarekin, Misio Pedagogikoen izena jaso zuten. Espainiak kulturalki erakusten zuen atzerapen egoera larria kontuan hartuz, eta batez ere nekazal eta herrixka inguruetan egoeraren larritasuna areagotzen zela kontsideratuz, misio horien helburu nagusia kultura zabaltzeko saiakera bat aurrera eramatea izan zen, horretarako herrixketan zehar ibili eta horietan kultur ekintzak planteatuko zituztelarik.

² 1882ko maiatzaren 6ko Errege Dekretuak sortua.

- **1898:** urte horretako apirilaren 21ean Estatu Batuek Espainiaren kontrako gudari ekin zioten, Kuba, Puerto Rico eta Filipinaseko independentzia lortzeko asmoz. Espainiak guda hori galdu zuen, gertakari horrek krisialdi sakonean murgilduz.
- **1900:** Instrukzio Publiko eta Arte Ederretako Ministerioa sortu zen.
- **1907:** urtarrilaren 11ko Dekretuz, Ikasketak Zabaltzeko Batzarra sortu zen.
- **1910:** Ikasleen Erresidentzia sortu zen, horrek Ikasketak Zabaltzeko Batzarrarekiko menpekotasuna erakusten zuelarik.
- **1911:** Instrukzio Publikoa eta Arte Ederretako Ministerioaren barruan, Lehenengo Irakaskuntzako Zuzendaritza Orokorra sortu zen.
- **1912:** Instrukzio Publiko eta Arte Ederretako Ministerioaren aurrekontuan lehenengo aldiz diru partida bat esleitu zitzaion Misio Pedagogikoak burutzeari.
- **1915:** Francisco Giner de los Ríos-en heriotza. Irakaskuntzaren Institutuzio Librearen Zuzendaritza Manuel Bartolomé Cossío-ren esku geratu zen; honekin lotuta, aipatu behar da ordurako Cossío-ren autoritate pedagogikoa oso baloratua zela. 1904tik aurrera Espainiako Unibertsitate arloan lehenengo Pedagogia katedraduna zen.
- **1916:** ekainaren 14ean Francisco Giner de los Ríos Fundazioa sortu zen, batez ere Institutuzioaren ondarea zaindu eta Ginerrek hasitako hezkuntza jarduera aurrera eramateko asmoz.
- **1923:** irailaren 13an Miguel Primo de Rivera jeneralak estatu-kolpea eman zuen. Kolpearen aldekoak Institutuzioaren ideia eta planteamenduen kontrako etsai amorratuak izan ziren.
- **1931:** apirilaren 14ean Bigarren Errepublika aldarrikatu zen. Urte horretako maiatzaren 29an Misio Pedagogikoen Patronatoaren sorrera jasotzen zuen dekretoa agertu zen³.
- **1936:** uztailaren 18ak guda zibilarren hasiera ekarri zuen.

Kronologia honetan agertzen diren data eta datu guztiak adierazgarriak eta garrantzitsuak badira ere, batez ere hiru data izango dira hemendik aurrera garatuko dugun bidea osatuko dutenak:

- 1876: Institutuzio Librearen sorrera.
- 1923: Primo de Riveraren diktadura.
- 1931: Espainiako Bigarren Errepublika.

³ 1931ko abuztuaren 6an Misio Pedagogikoen Patronatoaren Batzorde Nagusiaren kideak izendatzen zituen Ministerioaren agindua argitaratu zen, ondoko hauek aukeratuak izan zirelarik: lehendakaria Manuel Bartolomé Cossío, lehendakariordea Domingo Barnés (Museo Pedagogikoaren Zuzendaria), idazkaria Luis Álvarez Santullano, eta gainontzeko kideak José Ballester, Francisco Barnés, Luis Bello, Amparo Cebrían, Oscar Esplá, Rodolfo Llopis, Ángel Llorca, Antonio Machado, Lucio Martínez Gil, María Luisa Navarro, Marcelino Pascua, Enrique Rioja, Pedro Salinas eta Juan Uña.

3. ESPAINIAKO EGOERA XIX. MENDEAREN BUKAERAN ETA XX. MENDEAREN HASIERAN

xx. mendeko lehenengo bi hamarkadetan, politikoki XIX. mendearen bukaeran ere agertzen zen ezegonkortasuna mantendu zen, boterean gobernu kontserbatzaile eta liberalen arteko txandaketak agertuz; gertaera hau oso azpimarragarria da, hezkuntza arloan ere isla zuzena erakusten baitzuen: gobernu aldaketa bakoitzarekin Fomento⁴ edo ondorengo Instrukzio Publiko Ministerioaren ardura hartzen zuen pertsonaren aldaketa ere gertatu ohi zen, aipaturiko hezkuntza arlo horretan ere ezegonkortasun handiko egoera suposatzen zuena.

xx. mende hasiera hori, aurreko mendeko azkenengo urteetako gertakariak, 1898koek hain zuzen ere, markaturik agertzen zaigu. Aipatutako urte horretan, hasierako kronologian adierazi den moduan, Espainiak kolonia galera handiak eduki zituen, zorigaitza handia suposatu zuena, baina bide batez ere egoera aldatzeko beharraz ohartarazi egin zuena⁵. Gertakari horiek areagotu egin zuten Espainiak beste nazio batzuekin konparatuz erakusten zuen atzerapen irudia. Hala ere, lehen adierazi dugun moduan, galera horiek, zorigaitza ezezik, berpizteko grina ere bultzatu zuten, birsortze mugimendu baten beharraz benetako sinismenari hasiera emanaz. Honi dagokionez, aipatu beharra dago gertakari horiek baino lehenago bazegoela aldaketaren beharra aldarrikatzen zuenik; 1876. urtean Francisco Giner de los Ríos eta Unibersitatetik kanporaturiko beste katedradun batzuek Madril-en sortu zuten Irakaskuntzaren Institutio Librea⁶.

Ondorengo puntuetan Madril-en 1876an sortutako erakunde horretan sakontzeko aukera edukiko dugu, garrantzia handia erakutsi baitzuen Bigarren Errepublikan hezkuntza arloan egindako planteamenduan.

3.1. Instrukzio publiko eta arte ederretako ministerioaren sorrera

Birsortze mugimendu horrekin edo hezkuntza egoera bera aldatzeko behar horrekin lotuta, xx. mende hasieran politikan ere badago bereziki azpimarratu beharreko gertakari bat: Instrukzio Publiko Ministerioaren sorrera, 1900 urtean hain zuzen ere; honi dagokionez, Diaz de Laguardia-ren (1988, 294) ondoko aipu honetan agertzen zaizkigu horren inguruko as-

⁴ 1900. urtean Instrukzio Publiko eta Arte Ederretako Ministerioa sortu arte, irakaskuntzarekin lotutako arloa Fomento Ministerioaren esku geratzen zen.

⁵ 1898ko apirilaren 21ean Estatu Batuek Espainiaren kontrako gudari ekin zioten garai hartan horren menpe zeuden Kuba, Puerto Rico eta Filipinasen independentzia lortzeko. Espainiak guda hori galdu zuen, krisialdi sakona agertuz. Galera horiek bere atzerapen egoeraz ohartzen lagundu zioten, hortik aurrera birsortze mugimendua nagusitzen joan zelarik.

⁶ Gaztelaniazko jatorrizko izena «Institución Libre de Enseñanza» (ILE) da.

pektu nagusiak: «la fundación del Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes tuvo su origen en la polémica Ley de presupuestos del 31 de marzo de 1900, que en su artículo 20 autorizaba al Gobierno a dividir en dos secciones el de Fomento, compensándose la creación de una nueva cartera por la supresión de la de Ultramar, ya innecesaria por la pérdida de las colonias. El 18 de abril, la Reina firmo el Real Decreto por el que se suprimía el Ministerio de Fomento y se creaban otros dos en su lugar. El decreto textualmente decía: queda suprimido el Ministerio de Fomento; en su lugar se crean dos nuevos departamentos ministeriales que se denominarán, respectivamente, Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes y Ministerio de Agricultura, Industria, Comercio y Obras Públicas. El Ministerio de Instrucción Pública entenderá en lo relativo a la enseñanza pública y privada en todas sus diferentes clases y grados, en el fomento de las ciencias y de las letras, Bellas Artes, Archivos, Bibliotecas y Museos. Formará parte de este Ministerio la Dirección General del Instituto Geográfico y Estadístico».

Instrukzio Publiko Ministerioaren sorrerak, hezkuntzaren egoera hobetzeko ikuspegitik behintzat, aurrerapen handia ekar bazezakeen ere, errealitatean Ministeritza horren ardura erakusteak politikoki ez zuen ohore handirik ekartzen, eta aurreko Fomento Ministerioarekin gertatu zen moduan, kasu honetan ere sortuberria zen Ministerio hori ospe handiagoko beste batzuetarako sarbide moduan erabilia izaten zen. Horren froga da bere sorreratik Bigarren Errepublikara iritsi arte doazen urte horietan, Instrukzio Publikoko Ministerio horretan 51 ministro kontabiliza ditzakegula, eranskin gisa agertzen den kuadroan ikus daitezkeen moduan⁷.

3.2. Irakaskuntzaren instituzio librea

Hasieran aipatu dugu Bigarren Errepublikak suposatu zuen berrikuntzaren haziak urte asko lehenago bilatu behar zirela, XIX. mendearen bukaerara hain zuzen ere. Adierazi dugun moduan, garai horretan bazeuden aldaketa sakon baten beharra antzematen eta iragartzen zutenak, beraien lana aldaketa hori lortu ahal izateko saiakeran zentratu zutelarik; saiakera horretaz hitz egiteak derrigorrez eramaten gaitu Irakaskuntzaren Instituzio Librea aipatzera, hori izan baitzen praktikan aldaketa hori edo birsortze egoera ahalbideratuko zuen erakunde nagusia. Lehen esan bezala, Giner de los Ríos izan zen Instituzioaren sortzailea; Iglesiasek (2006, 14) eskaintzen digun Ginerren aipamen honek oso garbi erakusten digu Espainiako atzerapen egoera orokor horretan hezkuntzak jasotzen zuen atentzio maila: «de todos los pro-

⁷ Eranskin gisa eskaintako kuadro horretan gobernu txandaketak ikus daitezke, gobernu bakoitza noiz hasi eta noiz bukatu zen adierazten duten datak agertzen direlarik; horretaz gain, gobernu bakoitzarekin batera Instrukzio Publikoko Ministerioaren ardura hartu zuten ministroak, ministerio horren ardura noiz hartu eta noiz utzi zuten adieraziz.

blemas que interesan a la regeneración político-social de nuestro pueblo, no conozco uno solo tan menospreciado como el de la educación nacional».

3.2.1. *Krausismoaren eragina eta Instituzioa*

Madriilen sortutako erakunde horren ezaugarri nagusiak aztertzen hasi baino lehenago, beharrezkotzat jotzen dugu jatorriz horren sorrera inspiratu zuen ideologiaren aipamena egitea; benetako jatorria krausismo izeneko ideologian kokatu beharko genuke, eta honek berriro ere birsortze behararren inguruko kezka hitz egitera eramaten gaitu. Artikuluaren hasieran aipatu dugu bereziki azpimarratu behar genituela birsortze behar horri benetako bultzada eman zioten hainbat gertakari, horien artean 1898. urtekoak nagusituz. Hala ere, horiek erabakiorrak izan baziren ere, lehenengo saiakera batzuk ere agertu ziren horiek baino askoz lehenago: 1840. urtearen inguruan, zenbait legelari espainiarrek, pentsamendu liberalean oinarrituz, Espainiako birsortze planteamendua ahalbidera zezakeen dotrinaren bat bilatu nahian zebiltzan, eta hori Alemanian garatzen hasia zen krausismo⁸ izeneko ideologia batean aurkitu zuten; legelari horien artean bereziki Julián Sanz del Río azpimarratu behar da, 1843an bera izan baitzen krausismoa Espainian garatu zuena. Puelles Benitezek (1991, 283) aipatzen duen moduan, «desde que Sanz del Río pronunciara su famoso discurso inaugural en el curso académico 1857-58, el krausismo se presentó en España como una actitud militante de transformación moral de la nación. En realidad, el krausismo era un episodio local si lo relacionamos con el enfrentamiento general producido en Europa entre la Iglesia y las fuerzas que aspiraban a representar el mundo moderno. En el centro de esa batalla se encontraba precisamente la educación».

Hezkuntza arloari begira, horrek birsortzaile edo berritzaile eta tradizionalen arteko bereizketa ekarri zuen:

- Berritzaileak hasieran Sanz del Río eta ondoren Giner de los Ríos en inguruan kokatzen ziren, eta beraien asmo nagusia berrikuntza pedagogiko baten bitartez Espainiaren erabateko aldaketa lortzea zen; politikoki demokrata eta liberalak ziren, alderdi-politika baztertzen zutela aipatu behar bada ere. Oso erlijiosoak ziren, krausismoak berak jarrera erlijioso garrantzitsu bat ordezkatzeko baitzuen. Moralki beren jarrera publiko eta pribatua akatsgabekoa zen. Pedagogikoki berritzaileak ziren: pertsonak osatzea zen helburu nagusia, eta hezkuntza Espainia berri bat lortzeko bide moduan aurkezten zen.

⁸ Carlos Cristian Federico Krause-k Alemanian hasitako korrante filosofiko bat, Espainian, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, pentsamendu liberalean eragin garrantzitsua erakutsi zuena. Krausismo delakoak giza-garapena hobekuntza moralean oinarritzen zuen.

- Tradizionalak Elizaren inguruan kokatzen ziren, eta horren eskubi-deak defendatzea zen beraien helburu nagusia, Eliza justifikaziorik gabe erasotzen zutela kontsideratzen baitzuten. Politikoki karlismoaren eta integrismoaren aldekoak ziren, liberalismoaren kontrakoak modu sutuan; liberalismoa pekatu kontsideratzen zuten. Esandakoaren ondorioz, erabiltzen zuten ikuspegi katolikoa kontuan hartuz, bizitza publikoaren sekularizazioaren kontrakoak ziren. Hezkuntza arloan irakaskuntza ofiziala katolikoa izatea zuten helburu nagusi: dogma eta moral katolikoarekiko adostasunean, eta Elizak irakaskuntza ikuskatzeko eskubidea defendatuz.

Bereizketa hau kontuan hartzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu, azken finean, Espainiak izan behar zuenaz gain, Espainian agertzen zen irakaskuntza planteamenduak izan behar zuena ere kontenplatu baitzuen, Puelles Benítezen (1991, 285) hitzetan, «Frente a la España de la unidad católica de los tradicionales, los innovadores sueñan con la España laica; frente a una España intransigente y coactiva, se alza una España tolerante y partidaria de la concordia; frente a una España aislada y cerrada en sí misma, una España abierta a Europa y al mundo moderno. En definitiva, sobre innovadores y tradicionales se cierne el problema más general que vive toda la Europa de su tiempo, el problema de la secularización de las instituciones públicas y en especial de la enseñanza. Los tradicionales defienden a toda costa la enseñanza confesional. Los innovadores, en cambio, ven en la enseñanza confesional la causa fundamental de la división de los españoles. Los tradicionales estiman que la enseñanza confesional proporcionará nuevos defensores de la Iglesia, los innovadores consideran que esta enseñanza incrementará más aún la división de los ciudadanos, la dualidad, la lucha sin fin. De ahí que para los innovadores sea la tolerancia uno de los ejes cardinales de la renovación pedagógica que pretenden, mientras que para los tradicionales la intransigencia sea una virtud que hay que estimar, aprender y practicar».

3.2.2. *Irakaskuntzaren Instituzio Librearen faseak*

Instituzioaren garapenaren inguruan hiru fase edo etapa nagusi bereiztuko ditugu: lehenengo fasean bere sorrerari buruzko datuak ezagutzeko aukera aurkituko dugu; bigarren eta hirugarren faseetan, ordurako Instituzioaren oinarria nahiko sendo agertzen delarik, politika arloarekiko erakutsi zuten gero eta interes handiagoaz hitz egingo dugu.

3.2.2.1. LEHEN FASEA (1876-1881)

Hasieran aipatu dugun moduan, Irakaskuntzaren Erakunde Librea 1876. urtean sortu zen. Horren sortzaileek Unibertsitate arloan garatzen

zuten beren jarduera, baina horretatik kanporatuak izan ziren katedra-askatasuna defendatu eta erlijio, politika edo moral dotrina ofizialek adierazitakoa ez errespetatzeagatik beraien irakaskuntza jardueran. Sortzaile horien artean nagusiki Francisco Giner de los Ríos, Gumersindo de Azcárate eta Nicolás Salmerón aipatu behar ditugu.

Irakaskuntzaren Erakunde Libreak bere aurrekari zuzena krausismoan oinarritutako «Colegio Internacional» delakoan eduki zuen, Salmeronek sortu zuena 1866an. Puelles Benitezek (1991, 286) sorrera horren inguruan proposatu nahi zen hezkuntza planteamendua ondo definitzen digu: «el Colegio Internacional aspiraba a crear un nuevo ambiente para la educación, acogiendo al niño desde sus primeros años hasta los días de su formación universitaria. En el Colegio convivían profesores y alumnos en un clima familiar; incluso algunos alumnos vivían en régimen de internado, dentro de un contexto más parecido al de un hogar familiar que a un internado clásico, ambiente que será una de las características más elogiadas de la posterior Residencia de Estudiantes. Por último, en el Colegio Internacional se perfilaba ya el tipo de profesor que acuñará definitivamente la Institución: el de modestos artesanos entregados vocacionalmente a la enseñanza».

Irakaskuntzaren Erakunde Librearen sorrerara bueltatuz, puntu honen hasierako paragrafoan aipaturiko katedradunak Unibertsitatetik kanporatuak izateak beren hezkuntza jarduera Estatuko zentroetatik kanpo garatzen saiatzera behartu zituen; hasiera batean Goi Mailako Ikasketen Akademia bat antolatu zuten.

Beraien asmo nagusia berrikuntza pedagogikoa izaera birsortzailea erakutsiko zuen erakunde pribatu baten bitartez aurrera eramatea zen; asmo horren gauzapena Irakaskuntzaren Erakunde Librearen jaiotza izan zen, 1876ko urriaren 29an. Ginerrek erredaktatu zituen horren printzipio nagusiak, batez ere ondorengo estatutoen 15. artikuluan jasoko zirenak, Instituzioaren Boletinean (1880, 103) ikus daitekeen bezala: «La Institución Libre de Enseñanza es completamente ajena a todo espíritu e interés de comunión religiosa, escuela filosófica o partido político; proclamando tan solo el principio de la libertad e inviolabilidad de la ciencia y de la consiguiente independencia de su indagación y exposición respecto de cualquier otra autoridad que no sea la de la propia conciencia del profesor, único responsable de sus doctrinas».

Sorreraren jatorrian, aipatu den moduan, krausismo delakoa agertzen bazen ere, eta neurri handi batean bere eragina mantendu bazen ere, 1876. urtetik aurrera instituzionismo delakoaz hitz egiten da, ordurako krausismoa desfasaturik geratu baitzen positibismoaren garapenarekin⁹.

⁹ Positibismo delakoa Frantzian sortu zen XIX. mendean, Comte-ren eskutik. Bere oinarrian ezagutzak esperientziaren bitartez frogatzeko beharra aurkitzen dugu, ezagutza empirikoak lortzea hain zuzen ere. Ekintza da errealitate zientifiko bakarra, eta esperientzia eta indukzioa dira zientziaren metodo bakarrak.

Instituzioaren bokazioa Unibertsitate arloarekin lotzen zen: Espainiaren berrikuntza aurrera eramango zuten gutxiengo batzuen formakuntza. Beraz, ikastegi moduan, eta plan ofizialak jarraituz, batxilergoa, Letra eta Zientzien prestakuntza ikastaroak eta zenbait lizentziatura aurrera eramateko prestatzen zuten. Hala ere, laster ikusi zuten Unibertsitate arlorako prestakuntzak ekonomikoki porrota ekarriko zuela, eta horren ondorioz beraien lana gero eta arrakasta gehiago bereganatzen ari ziren bigarren mailako ikasketetan garatu zuten. Instituzioak maila horretan zentratu behar izango bi urteetan aurrera eraman zuten lana nahikoa izan zen konprobatu ahal izateko batxilergoa egiten ari ziren ikasleek lehen mailako prestakuntza egoki baten faltan agertzen zirela. Hori zela eta, 1878-79. ikasturtean zehar aipaturiko maila horri erantzuteko eskola bat ere sortu zuten, arrakasta handia lortuz.

Hasiara batean Unibertsitate Libre baten sorrerari uko egin behar izatea mingarria izan bazen ere, Giner eta bere jarraitzaileek laster ulertu zuten Berrezarpenaren garaian hezkuntzari buruz ezarriko zen lehia ideologikoa lehenengo irakaskuntza mailetan gertatuko zela, eta horretan zentratu zituzten beraien indarrak. Hala ere, Unibertsitatearen ideia ez zuten guztiz baztertu. Laster ikusi zuten lehen eta bigarren mailako irakaskuntzek ez zutela elkarren arteko inolako loturarik erakusten ez zuten zeozer izan behar; hori zela eta, biak ziklo bakar batean batzea proposatu zuten, aurretik aipatutako Boletinean (1880, 105) jasotzen zen moduan: «nuestro propósito es que los alumnos recorran cada año no una parte de cada enseñanza, sino el dominio íntegro de todas, aunque en muy reducidos límites al comienzo, y ampliando después estos límites en todas direcciones, es decir, ganando sucesivamente extensión, elevación y profundidad». Beraz, modu horretan Instituzioak lehen eta bigarren irakaskuntzak osatutako eta etengabekoa eta jarraia izango zen formakuntza ziklo bakar baten konfigurazioa bereganatu zuten.

Arlo pedagogikoan Instituzioaren ekarpenak ugariak eta oso garrantzitsuak izan ziren, baina bereziki honako hauek azpimarratu beharko genituzke:

- Hezkuntzari buruzko kontzepzio formatzailea, ezagutza transmititzailerik funtzioa bigarren maila batean utziz.
- Metodo intuitiboa erabiltzea, gaur egun metodo aktibo moduan definitzen duguna izango zen; koakzioa alde batera utzi behar zen, umearen partehartze librea bultzatuz.
- Izaera morala lantzea, nortasunaren garapenean arreta berezia jarritz.
- Gorputza zaintzea: higiegi eta heziketa fisikoaren nozioak landuz.

Ekarpen eta printzipio hauek Europa mailan garatuko zen Eskola Berriaren mugimenduak aldarrikatuko zituen printzipio batzuk gogoraraziko dizkigute; modu honetan, Instituzioa Eskola Berriaren aintzindari ere ager-

tzen zaigu, eta Jiménez-Landik (1976, 48-54) adierazten digun moduan, oso modu berezian baloratu beharrekoa da Instituzioak teorian proposatutakoa eta praktikan egindakoa, gehienbat Eskola Berriaren printzipioekin adostasunean agertu bazen ere, neurri batean bere planteamenduan horien lorpenak ere gainditu zituela esan bailiteke: «la Institución no solo se adelantó a la Escuela Nueva, sino que en cierto modo la superó, pues mientras en esta se impuso el internado, en aquella se mantuvo el criterio de que el niño debe vivir en el hogar familiar, complementando la acción de la familia con la de la escuela. Por eso fue tan característico de la Institución la convivencia de maestros y discípulos, prolongada a través de las excursiones y de las colonias de verano. Igualmente, frente al intento de la Escuela Nueva de crear un mundo al niño, la Institución respetaba su propio mundo tratando de ponerlo en relación con el de la sociedad en que el niño nace y donde ha de forjarse su personalidad».

Horrek guztiak Instituzioa ordezkatzeko zuzen giro propio bat konfiguratzeko zuzen, ondoko hauek zirelarik adierazgarriak nagusienak: portaera onak, gauzekiko zentzu estetikoak, naturarekiko maitasuna, tolerantzia, legegarekiko begirunea...

Hala ere, Instituzioak, Espainiako erabateko berrikuntza pedagogikoaren bilaketan, mugak eta zailtasun handiak aurkitu zituen; mugak batez ere erforma aurrera eramanez zuten klase sozialarenak ziren: instituzionistak ezkertiarak ziren, liberal eta demokratikak. Askotan ez zituzten klaseari lotutako zailtasunak gainditu; hori zela eta, beraietako batzuek politikan modu aktiboan aritzeko erabakia hartu zuten, sozialismoan hain zuzen ere. Instituzionismoa eta sozialismoak, hezkuntza arloari begira, beren fruitua eman-go zuten Bigarren Errepublikan.

Orain arte adierazitako guztiak, Zuluetak (1915, 53) azpimarratzen duen moduan, bi instituzio bereiztera behartu gaitu, biek bakar bat osatzen bazuten ere:

- Instituzioa irakaskuntza ikastegi moduan.
- Instituzioa komunitate izpiritual moduan.

«La primera de que hemos hablado es, en puridad, una escuela, un colegio. La segunda es una realidad social más amplia y más compleja. La forman las familias de los alumnos, los antiguos alumnos ya mayores, un núcleo de profesores liberales que simpatizan con esta corriente de educación, muchas personas de distintas ideas y profesiones más o menos influidas por ellas, y que se sienten más o menos estrechamente agrupadas en una dirección común. Esta unidad es, como decimos, meramente espiritual. No hay posibilidad de trazar sus contornos. Esta institución, comunidad espiritual, es el natural complemento de la otra, de la Institución escuela».

3.2.2.2. INSTITUZIOAREN BIGARREN FASEA (1881-1907)

1881. urteak, Instituzioaren azterketan, bigarren fase baten hasiera ekarri zuen, aipaturiko urte horretan liberalak Gobernura bueltatu baitziren. Hauek argitaraturiko zirkular baten bitartez, 1876. urtean Unibertsitatekanporatuak izan ziren katedradunak berriro Unibertsitatera bueltatzeko aukera aurkitu zuten; gertakari hau oso modu berezian azpimarratu beharrekoa da, instituzionismoaren zabalkundea ofizialtasunaren barrutik emateko aukera suposatu baitzuen. Unibertsitate barruan berriro egoteak etorkizunean instituzionismoaren aldarrikapenak zabalduko zituzten irakasleak formatzeko aukera eskaintzen zien; horren froga da batzuetan «ezkerreko jesuitismoa» aurrera eramatearen akusazioa leporatu zietela. Laster Unibertsitateetan ezezik, bigarren irakaskuntzako Institutoetan, Eskola Normaletan, Ateneoetan, prentsan... Instituzioak berak formatutako pertsonak aritu ziren.

1881. urte horretatik aurrera ere Instituzioa eta politikaren arloaren arteko loturak areagotu egin ziren, instituzionista eta Sagastaren alderdi liberalaren arteko harremanak estutuz. Hortik aurrera politika arlo horretako pertsonaia famatu askorekiko loturak ere agertuko ziren: Montero Ríos, Moret, Romanones...

3.2.2.3. INSTITUZIOAREN HIRUGARREN FASEA (1907TIK AURRERA)

Bigarren fasean aipatu ditugun politikarekiko loturak kontsolidatu egin ziren, modu horretan hirugarren fase bati hasiera emanez; hirugarren fase horretan berrikuntza pedagogikotik berrikuntza politikorako igarotzea eman zela adieraz daiteke, azkenengo berrikuntza horretan hezkuntza ere ardatza kontsideratu zelarik. Instituzionisten artean politika egitearen erabakia izan zen gehienek hartu zutena: Besteiros, Fernando de los Ríos edo Rodolfo Llopis alderdi sozialistan sartu ziren¹⁰; sinbiosi horren ondorioz, aurreko paragrafoetan aipatu dugun moduan, Bigarren Errepublikako Azahñaren biurtekoan planteatuko zen hezkuntza politika agertu zen.

Beraz, 1907. urte hori erabakiorra izan zen, neurri handi batean Instituzioa Estatu-aparatoren funtzionamenduan murgiltzea ekarri baitzuen. Hala ere, hirugarren fase hori ez zen bapatean sortu, bere ezaugarri gehienak aurreko fasean agertutako gertakarien ondorioak kontsidera baitaitezke:

- 1882. urtean Albaredaren Ministerioak Museo Pedagogikoa sortu zuen. Izen hori eduki bazuen ere, bere eginkizunik nagusia irakasleak formatzea zen, batez ere Eskola Normalek erakusten zuten hutsune pedagogikoa kontuan hartuz. Museo Pedagogikoaren lehengo zuzendaria Manuel Bartolomé Cossío izan zen.

¹⁰ «Partido Socialista Obrero Español» izeneko alderdia.

- Antolatu eta aurrera eramán ziren kongresu pedagogikoak: lehenengo 1882. urtean ere egin zen, horretan instituzionistek irakaskuntza publikoa hobetzeko erakusten zuten nahia nagusitu zelarik.
- Ikasketak zabaltzeko Batzarraren sorrera¹¹, 1907. urtean: instituzioak arlo ofizialean erakutsiko zuen gero eta eraginik handieneko hasiera unea konfiguratu zuen. Honekin lotuta, aipatu behar da sorrera hau garatzean neutraltasun politikoa erakutsiko zuen erakunde bat lortu nahi zela, baina laster jasoko zituen instituzionistek horretan erakusten zuten gehiegizko eraginari buruzko kritrikak.

Batzarrari esleituriko helburuak nagusiki bi izan ziren:

- Alde batetik etorkizuneko irakasleak zorrotasunez formatzea, hori kontsideratzen baitzen hezkuntza arloko berrikuntza ahalbideratuko zuen ezinbesteko baldintza.
- Bestetik, Espainiako kultura bultzatzea, Europara unibertsitariorik hoberenak bidaliz.

Batzarraren eskutik beste erakunde batzuk ere jaio ziren, Espainiako kultura eta hezkuntza arloan garrantzia handia eduki zutenak; horien artean Ikasketa Historikoen Zentroa, Ikasleen Erresidentzia eta Instituto-Eskola delakoa aipatu beharko genituzke.

3.2.3. *Instituzioa eta Eliza*

Instituzioak erakutsitako garapen prozesuan ezin dugu Elizak erakutsi zuen papera ahaztu, orain arte gure atentzioa zentratu duen Instituzioaren kontrako etsai amorratu agertu baitzen.

XIX. mendearen erdialdean Elizak galduta zeukan Unibertsitatearekiko denbora luzez erakutsi zuen monopolioa. Hori ikusirik, Berrezarpenaren garaian Elizak bere indarra lehen eta bereziki bigarren mailako irakaskuntzan zentratu zuen. Horretarako irakaskuntzara dedikaturiko kongregazio erlijiosoak, Puelles Benitezek (1991, 297) azpimarratzen duen bezala, erabakiorrak izan ziren. «Durante el largo período de la Restauración, los hijos de la alta burguesía y de la clase media españolas se educarán en colegios confesionales religiosos».

XIX. mendearen bukaeran Elizak oso paper aktiboa erakutsi zuen, batez ere «kongresu katoliko» direlakoak antolatuz. Hauen bidez aurre egin nahi zieten Ministerioak antolatzen zituen kongresu pedagogikoei, gehienetan kutsu instituzionista handia erakusten zutenak. Instituzioa benetakako obsesio bihurtu zen Elizarentzat, horretan liberalismoak ekartzen zion arriskua antzematen baitzuten.

¹¹ Jatorrizko izena «Junta para la Ampliación de Estudios» da.

3.3. Primo de Riveraren diktadura garaia

1923ko irailaren 13an Primo de Riverak estatu-kolpea aurrera eraman zuen, modu horretan 1930. urtean bukatuko zen Diktadura garai bati hasiera emanaz. Honekin lotuta, adierazi behar da estatu-kolpe horren baitan, aurrera eraman zutenen ikuspegitik behintzat, Espainiak erakusten zuen atzerapen horretatik ateratzeko nahia agertzen zela, bide batez beren gus-tuko gertatzen ez zen baina iadanik hasita zegoen berrikuntza prozesua gelditzeko nahia agertzen zelarik. Atzerapen horren arrazoiak marko poli-tikoan agertzen zen ezegonkortasun horrekin zuzenean lotzen zituzten; beraz, hondamendia ekiditeko, beraien ikuspegitik beharrezkoa zen poli-tikariak gaizki burutzen ari ziren ardura horiek beste batzuen esku uztea, militarren edota horiek aukeraturiko pertsonen esku hain zuzen ere, Primo de Riveraren Diktadura garaiko aldarrikapen honetan egiazta daitekeen moduan:

Al país y al ejército.

Españoles: Ha llegado para nosotros el momento más temido que es-perado (porque hubiéramos querido vivir siempre en la legalidad y que ella rigiera sin interrupción la vida española) de recoger las ansias, de atender el clamoroso requerimiento de cuantos amando la Patria no ven para ella otra salvación que liberarla de los profesionales de la política, de los hombres que por una u otra razón nos ofrecen el cuadro de desdichas e inmoralidades que empezaron el año 98 y amenazan a España con un próximo fin trágico y deshonoroso. La tupida red de la política de concu-piscencias ha cogido en sus mallas, secuestrándola, hasta la voluntad real. Con frecuencia parecen pedir que gobiernen los que ellos dicen no dejan gobernar, aludiendo a los que han sido su único, aunque débil, freno, y llevaron a las leyes y costumbres la poca ética sana, este tenue tinte de moral y equidad que aún tienen, pero en la realidad se avienen fáciles y contentos al turno y al reparto y entre ellos mismos designan la sucesión. Pues bien, ahora vamos a recabar todas las responsabilidades y a gober-nar nosotros u hombres civiles que representen nuestra moral y doctrina (...). Este movimiento es de hombres: el que no sienta la masculinidad completamente caracterizada que espere en un rincón, sin perturbar los días buenos que para la patria preparamos.

Españoles: ¡Viva España y viva el Rey!¹²

Diktadura garai hori Direktorio Militar baten sorrerarekin hasi zen, bederatzi jeneral eta almirante batek osaturikoa. Direktorio Militar horrek lehengo botere exekutiboa ordezkatu zuen, aurrera eramandako lehenengo urratsak ondoko hauek izan zirelarik: konstituzioaren etenaldia, udaletxeen desegitea, alderdi politikoen debekua eta guda-egoeraren aldarrikapena;

¹² Primo de Riveraren manifestua, 1923ko irailaren 13an.

azkenengo hau irailaren 14an aldarrikatu eta 1925eko martxoaren 16an bukatu zen, urte horretan berriro Ministro Batzarraren Lehendakari-tza berezarriz.

Hezkuntza arloan laster agertu ziren Direktorio Militar horrek egindako murrizketak, horietako asko katedra edo irakaskuntza askatasunarekin lotuta zeudenak, ondoko aipu honetan adierazten den moduan: «...los maestros de escuelas nacionales y todos los profesores de la enseñanza pública que, por la delicada misión que el Estado les encomienda al entregarles la educación de las nuevas generaciones, deben dar ejemplo paladino de virtudes cívicas dentro y fuera de las aulas y conducir a sus discípulos por la senda del bien y del orden social, tanto en las lecciones que les transmitan y en las doctrinas que les infundan como en la vida que ellos mismos realicen. Así lo realiza la inmensa mayoría del profesorado español; pero hay algunos... que se dedican a propagandas más o menos encubiertas contra la unidad de la patria o contra instituciones que, cuales la familia, la propiedad, la religión o la nación, constituyen el fundamento sobre que descansa la vida de los pueblos. Algunos, aunque poquísimos, pero no por esto menos perniciosos, llegan a pretender cautelosamente introducir sus nefandas doctrinas en el alma de sus discípulos...»¹³.

Errektore, ikastegietako Zuzendari eta irakaskuntzako inspektoreen ardura zen irakasleek aberriaren kontrako dotrinak aldarrika ez zitzatela kontrolatzea, horretarako horiek aukeratutako testu liburuak ere kontrolatzen zirelarik.

Diktadura garai horrek ez zituen berak eta bere jarraitzaileek desiraturako emaitzak erakutsi; garai horren inguruan, ordea, irregulartasun handiak agertu ziren, diktadorearen irudia, bere jarraitzaileen artean ere, nahikoa belztuta geratu zelarik, Bahamondek (2005, 521) adierazten duen moduan: «a la larga, todo un conjunto de denuncias y enfrentamientos escandalosos del Dictador con intelectuales, universitarios, militares, jueces y otros sectores profesionales, las relaciones ambiguas y llenas de puntos oscuros con empresarios y financieros más o menos aventureros, terminaron creando una pieza básica del discurso antimonárquico de un nuevo y emergente republicanismo, al identificar el régimen y la Monarquía con los viejos vicios de la corrupción, el burocratismo y el militarismo interesados, con la ineficacia».

Hala ere, Rubiok (1974) azpimarratzen duen moduan, ez litzateke zuzena izango diktadura garaiko hezkuntza politikan agertutako aspektu negatiboak bakarrik azpimarratzea, zenbait aspektu positibo ere aurrera eraman baitziren: azpimarragarria da lehen irakaskuntzarako eraiki zen eskola kopurua, eta baita bigarren irakaskuntzarekiko erakutsi zuten kezka eta intere-

¹³ Madrilgo Gazeta, 287. zbkia (1925), 194-195 orr., in PUELLES BENÍTEZ, M. (1991): *Educación e Ideología en la España Contemporánea*. Bartzelona, Labor.

sa; lehen irakaskuntzako eskolak eraikitzeko prozesuari zegokionez, adierazi behar da 1924 eta 1929. urteen artean 6.000 eskola eraiki zirela; datu hau oraindik ere adierazgarriagoa izan daiteke xx. mendeko lehenengo 23 urteetan 5.563 eskola eraiki zirela aipatzen badugu. Lázarak (1975, 115), ordea, honela justifikatzen du eskola ugalketa horren arrazoa: «...se debe más al impulso general de ejecución de obras que, desaparecido el freno de las luchas políticas, caracterizó al período, que a un real despertar al problema específico de la abrumadora carencia de escuelas».

4. BIGARREN ERREPUBLIKAREN GARAIA

4.1. Errepublikaren aurrekariak

1930. urteko urtarrilean Primo de Rivera jeneralak bere dimisioa aurkeztu ondoren, eta diktadura garaia ezintasuna frogatuta, Alfonso XIIIa saiatu zen berriro ere bide konstituzional eta parlamentarioa berreskuratzen, baina berak eta Primo de Riveraren diktadurak egindako akatsak ez ziren oso erraz gaindituko. Bahamondek (2005, 536) ondo irudikatzen du orduko egoera: «se trataba de encontrar los medios de preservar el control político de las élites burguesas socialmente hegemónicas, que creían amenazado a través del empuje dado por los errores de la Dictadura y el monarca a la izquierda política y social del país».

1930. urteko ekainean Alfonso XIII Santiago Albarekin¹⁴ elkarrizketatu zen egoerari irtenbide bat bilatzeko asmoz. Albaren proposamenen artean hauteskunderen deialdia agertzen zen; hauteskunde horiek 1931ko apirilaren 12an iritsi ziren, beraien emaitzak Bigarren Errepublikaren aldarrikapena ekarri zutelarik. Horren aldeko mugimenduek klase ertain, profesional, popular eta langileen mobilizazioa lortu zuten, hiri eta hiriburu nagusietan emaitza onak, eta Bahamonderen (2005, 543) hitzetan, batzuetan harrigarri onak, lortuz. «En el origen inmediato de la instauración del régimen republicano confluye tanto el agotamiento del sistema político de la Restauración y la incapacidad de sus élites para reconvertir los pasos de la Monarquía de Alfonso XIII, como el empuje de la alternativa republicana y sus estrategias políticas».

1931. urteko apirilaren 14ean Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatu zen. Izenak berak aitortzen digun moduan, Espainian, Estatu moduan, Errepublikak Monarkia ordezkatzeko bigarren aldia zen. Lehenengo 1873. urtekoa izan zen, eta egia esateko sortzen zituen oroimenak

¹⁴ Santiago Albak hainbat Ministerioren ardura eduki zuen Alfonso XIII.aren erregealdian. Eranskin gisa agertzen den kuadroan ikusi ahal izango dugu Instrukzio Publikoko Ministerioaren ardura 1912 eta 1918an eduki zuela. Primo de Riveraren diktadura garaian Franzian erbesteturik egon zen.

ez ziren oso positiboak, ezegonkortasun handiko garai batekin identifika-tzen baitzen. 1931an, ordea, egoera oso desberdina zen, bere jatorria eta ekar zitzakeen emaitzak oso itxaropentsuak baitziren; aldaketa animoak eta etorkizun itxaropen handiak agertzen ziren: Errepublika berritze poli-tikoaren eta demokraziaren sinonimoa zen. Hala ere, eta honekin lotuta, aipatu behar da berritze egoera eta itxaropen horiek guztiak ikuspegi des-berdinetatik aztertu zirela, nahi desberdinek konfiguraturiko ikuspegietatik hain zuzen ere; hori dela eta, ezin da Errepublika bakar batetaz hitz egin, Errepublika desberdin batzuetaz baizik, edo hobeto esanda, Errepublika errejimena ulertzeko modu desberdinetaz.

4.2. Bigarren Errepublikaren faseak

Bigarren Errepublikaz hitz egitean nagusiki honako etapa desberdin hauek bereiztu ohi dira:

- Zentro-ezkerrarekin lotutako Gobernua: 1931-33.
- Zentro-eskuinarekin lotutako Gobernua: 1933-36.
- Fronte Popularra: 1936-39.
- Guda zibila: 1936-39.

4.2.1. 1931-33. biurtekoa

Lehenago adierazitako Errepublikaren etapa desberdin horien artean, hezkuntza ikuspegitik behintzat, etaparik emankorrena lehenengoa izan zen, 1931tik 1933ra joan zena.

Errepublikaren behin behineko gobernua ezarririk, Marcelino Domingo Instrukzio Publikoko ministro agertuz, laster hasi ziren hezkuntzaren egoeraren aldaketaren lehenengo ardatzak agertzen: elebitasuna, Instrukzio Publikoko Batzarraren birrantolaketa eta irakaskuntza erlijiosoa ziren lehenbailehen tratatu beharreko ardatzak.

Ardatz horiek guztiek garrantzia handia eduki bazuten ere, akaso be-reziki azpimarratzekoa da erlijioaren irakaskuntzari zegokiona: erlijioaren irakaskuntzaren derrigortasuna ezabatu egin zen. Horri zegokionez, oso adierazgarria da Lehen Irakaskuntzarako Zuzendaritzak 1931ko maiatzaren 13an argitaraturiko zirkular bat, horren bidez Errepublikak aldarrikatu nahi zuen erlijio tolerantzia ondo azpimarratzen baitzen, «Colección Legislativa de Instrucción Pública» (1931) delakoan egiazta daitekeen bezala: «la supresión de la enseñanza religiosa con carácter obligatorio no debe sig-nificar abandono en la dirección moral de los escolares; por el contrario, al perder esta enseñanza su orientación dogmática y catequista, el maestro se esforzará, ahora más que nunca, en aprovechar cuantas oportunidades le ofrezcan sus lecciones en otras materias, el diario hacer de la escuela y los

altos ejemplos de la vida de los pueblos para inspirar en los niños un elevado nivel de conducta».

Behin behineko Gobernu horrek batez ere lehenengo irakaskuntzarekin loturiko dekreto asko ateratzen jarraitu zuen. Lehenengo irakaskuntza horrek arreta berezia bereganatzen bazuen ere, horrek ez zuen esan nahi helduen beharrak ahaztu egiten zirenik; horren froga, eta hasierako kronologian aipatu den bezala, 1931ko maiatzaren 29ko dekretorekin bitartez, Misio Pedagogikoak sortu zituzten. Beraien helburu nagusia lehenengo irakaskuntzaren ondareak erakusten ez zituzten herrixketan kultura orokorra zabaltzea zen.

Orain arte aipaturiko guztia adierazgarria bada ere, behin behineko gobernuaren hezkuntza politika ordezkatu zuen proiekturik esanguratsuena lehenengo irakaskuntzarako eskolen defizita konpondu nahiarekin lotuta agertu zen; bere kargua hartzean, Rodolfo Llopis eskolen egoerari buruzko datu faltagatik kexatu zen, horren ondorioz Inspektzioak lan horri ekin behar izan ziolarik. Lehen Irakaskuntzako Inspektzio horrek egindako lanak 32.680 eskola kontabilizatu zituen, baina beraien datuen arabera oraindik ere beste 27.151 behar ziren. Defizit egoera hori ikusirik, Ministeritzak bosturteko plan bat proposatu zuen: bost urte horietan falta ziren eskola horiek guztiak eraikiko ziren, urte bakoitzeko 5.000 eskola sortuz, 7.000 eskola eraikitzea ekarriko zuen lehenengo urtearen salbuespenarekin.

Eskola falta horretaz gain, beste gai kezkarri bat ondo prestaturiko irakasleen falta zen; honekin lotuta, adierazi behar da irakasleek oso soldata eskasa jasotzen zutela. Hori izan zen Errepublikak planteaturiko hezkuntza politikaren bidez konpondu beharreko beste aspektu bat, baina irakasleek jasotzen zuten konpentsazio ekonomikoa hobetzeaz gain, esan dugun moduan, irakasle gehiago prestatu behar ziren lehenago adierazitako eskola sortze prozesu horri erantzun ahal izateko. Asmo horrekin, lehengo oposizio sistema bertan behera uztea erabaki zen, hortik aurrera hautaketa profesionaleko ikastaro batzuk antolatu zirelarik; 1931eko uztailaren dekretuak horren berri ematen digu: «el decreto estableció que los candidatos pasarían tres meses bajo el control del Ministerio recibiendo una preparación profesional y una orientación pedagógica, etapa que se dividiría en tres partes: clases en las escuelas normales, prácticas pedagógicas en las escuelas primarias y lecciones de orientación en las universidades. Finalmente, eran seleccionados por tribunales competentes a estos efectos».

Aurreko paragrafoetan deskribatu dugun egoera ondo laburtuta agertzen zaigu «Colección Legislativa de Instrucción Pública» delakoaren (1931) beste aipamen honetan: «urgía crear escuelas, pero urgía más crear maestros; urgía dotar a la escuela de medios para que cumpliera la función social que le está encomendada, pero urgía más capacitar al maestro para convertirlo en sacerdote de esta función; urgía elevar la jerarquía de la escuela, pero urgía igualmente dar al maestro de la nueva sociedad democrática la jerarquía que merece y merecerá haciéndole merecedor de ella».

Irakaslearen formakuntzak hiru oinarri nagusi bildu behar zituen: kultura-la (Bigarren Irakaskuntzako Nazio Institutoetan eskainiko zena), prestakuntza profesionala (Eskola Normaletan¹⁵ garatuko zena) eta praktika pedagogikoarena (Eskola Nazionaletan aurrera eramango zena).

Hezkuntza arloko erreformak kontenplatu zuen beste aspektu garrantzitsu bat gizon eta emakumeen Eskola Normalak batzea izan zen, Eskola Normal mistoak sortuz eta horietan hezkidetzak planteamendua bultzatuz.

Lehenago ere adierazi dugun moduan, lehen mailako irakaskuntzak arreta berezia bereganatu bazuen ere, beste irakaskuntza arloak ere kontuan hartu ziren: bigarren mailako irakaskuntzari zegokionez, 1931ko maiatzaren 13ko dekretuak 1926an sortutako Calleja Plana bertan behera utzi zuen, 1903ko plana berreskuratuz. Horrekin batera, liberalek aspaldi kontenplaturiko asmoa berrezarri egin zuten: irakaskuntza maila bakoitzarekiko titulazio egokia eskatzea hain zuzen ere¹⁶. Horrek kongregazio erlijiosoen protestak berpiztu zituen, gogoratu behar baita askotan ez zutela titulazio egokirik erakusten.

Orain arte deskribaturiko neurriak izan ziren Errepublikaren lehenengo biurteko horren hezkuntza politika ordezkatu zutenak; hala ere, garbi ikusten zuten Instrukzio Publikoko lege berri baten beharra. Marcelino Domingok, orduko Instrukzio Publikoko Ministroak, arlo horretako Batzordeari lege berri horren prestakuntza eskatu zion, honek Luzuriagari¹⁷ enkargua luzatu ziolarik. Laguntza handikoa izan dakiguke Pérez Galanek (1975, 45-50) eskaintzen digun Luzuriagak sortutako dokumentu horri erreferentzia egitea, horretan Bigarren Errepublikan lortu nahi zen hezkuntza ereduaren ardatz nagusiak irudikatzen baitziren:

- Hezkuntza publikoa nagusiki Estatuaren funtzioa da. Hala ere, helburu politiko edo konfesionalak erakutsi ezean, irakaskuntza pribatua ere onartzen da.
- Hezkuntza publikoak laikoa izan behar du.
- Hezkuntza publikoak dohainik izan behar du, batez ere lehen eta bigarren mailako irakaskuntzetan. Unibertsitate arloan matrikulen % 25a dohainekoa izan behar da.
- Hezkuntza publikoak izaera aktibo eta sortzailea eduki behar du.
- Hezkuntza publikoak izaera soziala erakutsi behar du. Eskolak ez du komunitate sozialetik aldentu behar, horretan txertatu behar duela baizik.

¹⁵ Eskola normaletan matrikulatu ahal izateko batxilergoa bukatu eduki behar zuten.

¹⁶ Lehen mailako irakaskuntzarako maisu titulua eskatzen zen, eta bigarren mailako irakaskuntzarako lizentziatu titulua.

¹⁷ Lorenzo Luzuriaga Irakaskuntzaren Institutio Librearen ikasle eta ondoren maisua ere izan zen. 1913an Ikasketak Zabaltzeko Batzarrak Alemaniara joateko beka bat eman zion. Handik bueltatzean politikan ere garatu zuen bere jarduerak, PSOEn hezkuntza programaren egile nagusia izanik. Bigarren Errepublika garaiko hezkuntza politikan oso paper aktiboa eduki zuen.

- Hezkuntza publikoak bi sexuetakoko pertsonak atenditu behar ditu, irakaskuntza maila guztietan hezkidetzat bultzatu beharreko oinarria izango delarik.
- Hezkuntza publikoak beraien artean erabat erlazionaturik dauden hiru mailek osaturiko sistema unitario bat osatzen du.

Luzuriagaren dokumentu horretaz gain, erreferentzia egin behar diogu 1931ko Konstituzioari, 1812koarekin lotura handiak erakusten zituenari. Azkenengo horrek hezkuntzari propio kapitulu bat eskaini egin zion; 1931ekoak, kapitulu propioarekin erakusten ez bazuen ere, hezkuntza inguruko arazoak gehien tratatu zituen testua izan zen.

Aipaturiko testu hauetan aldarrikaturikoak ez zuten suposatzen Elizak besterik gabe onartu behar zuten egoera bat; aitzitik, interpretatu zuten testu horietan, eta batez ere 1931ko konstituzioan, Elizaren aurkako eraso bortitza agertzen zela, eta ez zeuden prest eraso hori besterik gabe jasateko.

Errepublikak eta Elizak hezkuntza-kontzepzio desberdinak planteatzen zituzten, askotan eredu desberdin horien muturreko interpretazioak ere agertu ziren: Errepublikak aldarrikatu nahi zuten eskola laikoa Elizak eskola ateo baten zabalkunde moduan interpretatu zuen; Errepublikak umearen kontzientziarekiko begirunetzat jotzen zuenak Elizarentzat haurtzararen deskristautasuna ekartzen zuen.

Gertakari nagusiak azpimarratuz gero, adierazi behar da 1932ko urtarrilaren 24an Jesusen Konpainiaren desagitea gauzatu zela, hezkuntza arloan kongregaziorik adierazgarriena izan zena. Horrekin loturik, Elizak gogor kritikatu zuen 1933ko maiatzaren 17an onartutako Kongregazio Erlijiosoaren Legea, horrek modu praktikoan kenduko baitzien irakaskuntzan garatzen zuten jarduerak.

Irakaskuntza konfesionalaren eta laikoaren aldeko jarraitzaileen arteko eskola borroka horretan, unerik esanguratsuen Aita Santuaren partehartzea izan zen, 1933eko ekainaren 3ko entziklikarekin.

Kontzepzio eta interpretazio desberdin hauek guztiek bien arteko guda gogorra ekarri zuten; esan liteke une horietan hain zuzen ere ondorengo nazional-katolizismoaren hasiak landatzen hasiak zirela, baina horri ondoren egingo diogu erreferentzia.

Errepublikako konstituzioa onarturik, Fernando de los Ríos¹⁸ izan zen Instrukzio Publikoko Ministro berria. 1931-33. biurteko horretan garatutako beste lorpen garrantzitsu batzuk honako hauek izan ziren:

- 1932ko urtarrilaren 27ko dekretuaren bidez Madrilgo Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatean Pedagogia Saila sortu zen;

¹⁸ Fernando de los Ríos Irakaskuntzaren Institutio Librearen maisua izan zen. Instrukzio Publikoko Ministerioaren ardura hartzean beren postuetan berretsi egin zituen Domingo Bar-nés eta Rodolfo Lopís.

modu horretan ikasketa pedagogikoak unibertsitatera eramateko nahia lortu zen.

- 1932ko abenduaren 2ko dekretuaren bitartez lehen mailako irakaskuntzaren aspektu garrantzitsu bat arautu zen: inspektzioa. Horrekin lotuta, oso azpimarragarria da dekretuan inspektorearen figuraz hitz egiteko modua: kontseilari moduan definitzen zuten, irakasleari laguntza eta orientazioa eskainiko zion figura bat hain zuzen ere.
- Bigarren mailako irakaskuntzari zegokionez, Instrukzio Publikoko Ministerioak aurre egin behar izan zion lehenago aipaturiko 1933ko Kongregazio Erlijiosoek lege horri, urte horretako urriaren 1erako kongregazioek garatzen zuten irakaskuntza bertan behera uzteko beharra adierazten zuenari; datu kuantitatiboak eskainiz, urte horretan kongregazio erlijiosoek zuzendutako bigarren mailako irakaskuntza ikastegiak 295 ziren, guztira 20.684 ikasle zutenak. Gertakari horrek, behar berriei erantzuteko, estatu-ikastegiak sortzea eskatzen zuen. Hori zela eta, Ordezkapen Batzarra delakoa sortu zen ekainaren 7ko dekretu baten bitartez.
- 1932ko abenduaren 30eko dekretuaren bitartez bigarren irakaskuntzarako Inspektzio Orokorra ere sortu zen. Inspektorearen figurak lehen mailako irakaskuntzan ordezkatzeko zuenari jarraituz, bigarren irakaskuntzan Instrukzio Publikoko Ministerioa eta bigarren mailako ikastegiaren arteko lotura suposatzen zuen.

4.2.2. 1933-1936

1933ko uztailan hauteskunde lege berri bat onartu zen, bere baitan nagusiki gehiengo-sistema planteatzen zuena; horrek, praktikan, koalizioak osatzera bultzatzen zuen, bere bakardadean aurkeztutako alderdi edo pertsona batek arrakasta lortzeko oso aukera gutxi izanik. Lege berri horrek garrantzia handia eduki zuen, aipatutako urte horretan bertan hauteskundeak deitu behar baitziren; horietan ezker-errepublikano eta sozialistek hasiera baten osaturik zuten koalizio-estrategia bertan behera utzi zuten, horrek azkenean garaipena Lerrouxen eta CEDA¹⁹ko jarraitzaileen esku uztea suposatu zuelarik. Garaipen hori urte horretako azaroan lortu zuten.

Garaipen hori lorturik, aurreko biurtekoan martxan jarritako prozesua erabat mantsotu zen, kasu askotan atzerapauso garbiak ere agertuz: 1934ean lehen mailako eskoletan aurreko biurtekoan lantzen hasia zen

¹⁹ Confederación Española de Derechas Autónomas (CEDA): 1933ko martxoan sortutako alderdi koalizio bat izan zen. Eskuineko katolikoek osaturiko koalizioa zen, katolizismoa izanik beraien adierazgarri nagusia.

hezkidetza planteamendua debekatu zen, ondoren Eskola Normaletan ere gauza bera lortu nahi izanez. Hezkidetzez gain, deuseztatu zuten beste elementu bat Inspekzioarena izan zen.

4.2.3. 1936-1939

1936. urtean beste hauteskunde prozesu bati aurre egin behar izan zitzaion. Hauteskunde horietan ere polarizazio garbi bat agertzen zen, ezkerre eta eskuinaren arteko borroka hain zuzen ere. Ezker-planteamendua Fronte Popularran islaturik agertzen zen, helburu nagusia Errepublikako lehenengo biurtekoan zehar garatutako politika erreformizatzailea berreskuratzea zutelarik.

Hauteskundeetan Fronte Popularrak lortutako garaipenarekin Instrukzio Publikoko Ministeritzaren ardura berriro Marcelino Domingori esleitu zioten. Hortik aurrera, berriro ere ekin zioten 1931-33ko biurteko horretan martxan jarritako proiektuen berreskurapenari; proiektu horien artean, batez ere berehala berreskuratuz adierazgarri nagusizat agertzen zen eskolak sortzearena.

4.2.4. *Espainiako guda zibila (1936-39) eta bere ondorioak*

1936ko uztailaren 18an guda zibila hasi zen, berriro ere iraganean martxan jarri eta une horietan Fronte Popularra berreskuratzen ari zen hainbat eta hainbat proiektu bertan behera uztea suposatu zuena.

Guda egoerarekin, Puelles Benitezek (1991, 349) azpimarratzen duen bezala, hezkuntzak karga ideologiko handia jaso zuen: «el nuevo contenido ideológico se pone de manifiesto en las orientaciones pedagógicas que se imparten al profesorado. Así, el profesor de Geografía, además de dar a conocer los lugares en que la contienda se desarrolla, deberá explicar las características económicas, políticas y sociales de cada región, dentro lógicamente de un contexto geográfico y haciendo mención especial de los países que ayudan a la República (México y la URSS)».

Guda zibilak Berrezarpen garaian zehar landutako tolerantzia politikoaren bukaera ekarri zuen, garaile atera zen errejimen politiko berriak demokrazia aztarnak ezabatu eta adierazgarri nagusi intolerantzia aldarrikatu zuelarik. Intolerantzia horrek hezkuntza arloan ondorio larriak edukitu zituen; eredu zuzentzaile eta autoritario bat garatu zen: bere ezaugarri eta helburu nagusiak «nazional-katolizismo» delako mugimenduan islatu ziren.

Egoera horretan Elizak, gudan zehar eta horren bukaeran ere garaile atera zirenekiko erabateko atxikimendua erakutsi zuenez, Errepublikako aurreko etapetan, batez ere hasierako biurtekoan, galdutako eremua berreskuratzeke aukera eduki zuen. Estatu berriak Errepublika-legedia deuseztatu zuen eta Elizari moralaren arloa ikuskatzeko ardura bueltatu egin zion.

Irakaskuntza konfesionalaren itzulerak hiru printzipio nagusi zituen:

- Eskola guztietan erlijioa irakasteko betebeharra²⁰.
- Moral eta dogma katolikoarekiko adostasunean garatu beharreko irakaskuntza.
- Elizak irakaskuntza ikastegi guztiak ikuskatzeko eskubidea.

Aipatutako printzipio horiek errealitatean suposatu zuten Eliza agertuko zela irakaskuntza-funtzioa aurrera eramateko gaitasuna erakusten zuen erakunde bakar moduan. Hori horrela izanda, Estatuak hezkuntza arloarekiko ardurak Elizaren esku utzi zituen, 50. hamarkadaren lehenengo urteetara iritsi arte berreskuratu ezinik.

Espainiak une horietan erakusten zuen balore tradizionalen atzerapen egoeraren erruduntzat Bigarren Errepublikaren hezkuntza eredia zuten, eta horren ondorioz ezinbestekoa zen depurazio ideologiko prozesu bat hastea; prozesu horrek, Iglesiasek (2006, 19) adierazten duen moduan, irakasleen kasuan ezezik, testuliburu eta eskola-liburategietan ere eragin behar zuten: «solo deberían subsistir aquellos libros que respondan a los principios de la religión y la moral cristiana y exalten el patriotismo». Hala ere, arlo horiek guztiak kontenplazten baziren ere, azpimarratu behar da depurazio prozesua eta bere ondorioak batez ere irakasleengan zentratu zirela, eta bereziki Bigarren Errepublikak hain ilusio handiz formaturiko irakasle horiengan.

Errepublikarekiko begikotasuna benetan erakutsi edo erakutsi zezaketen horien kasuan, depurazioak gogor jokatu zuten; iadanik gogorra zen egoera gero eta gogorrago bihurtu zen: aipatutako begikotasuna modu aktiboan erakutsi zuten horien kasuan ezezik, depurazioa ondorengo fase batean garaile atera zirenekin kolaboratzeko aukera aprobetxatu ez zutenen kasuan ere aplikatu zen, hau da, modu pasiboan agertu ziren horien kasuan ere.

5. ONDORIOAK

XIX. mendean, Espainiak erakusten zuen hezkuntza egoerari buruz hitz egitean, atzerapena aipatu behar dugu adierazgarri nagusi moduan; populazio gehiengo alfabetatugabekoa zen, hezkuntza klase sozial altuen esku bakarrik geratuz. Elizak kontrol zorrotza erakusten zuen horiei eskaintzen zitzaien irakaskuntzan; balore katoliko tradizionalak ziren erabat nagusitzen zirenak. Estatuaren eta Elizaren arteko loturak balore horien aldarrikapena bermatzen zuen. Estatuak, hezkuntzaren atzerapen egoera horrekin lotuta, ez zuen erreformarik aurrera eramateko izpirik ere erakusten, ez baizitzaion interesatzen hezkuntza populazio gehiengoaren esku jartzea;

²⁰ 1936ko irailaren 21eko eta abenduaren 9ko ministeritza-aginduek lehen eta bigarren mailako ikastegietan erlijioa irakasteko derrigortasuna adierazten zuten.

egoera hau ikusita, sistema ofizialak hezkuntzaren erreformaren bat planteatzeko zehaztasunak ezarri zituen.

XIX. mende bukaeran, Espainian jarrera dikotomia bat agertzen zen: tradizionala eta berritzailea. Lehenengoaren aldekoek batez ere Elizaren eskubideak eta bere paperaren garrantzia hezkuntzan defendatu nahi zuten; bigarrenaren aldekoek, Espainiak erakusten zuen atzerapen egoera hori aipatuz hartuz, berritzailearen beharra aldarrikatzen zuten.

Baina XIX. mende bukaeran agertzen diren gobernuen izaera kontserbatorista kontuan hartuz, erreforma esanguratsuen bat aurrera eramateko aukerak, aurreko lehenengoaren adierazi dugun moduan, sistema ofizialek kanpo jokatzeko beharrezkin lotuta agertzen ziren, eta hori izan zen hain zuzen ere Giner de los Ríos eta bere jarraitzaileek Unibertsitatekan kanporatuak izatean aipatzen zuten; ofizialtasunetik kanpo geratzeak Irakaskuntzaren Institutio Librea sortzeko aukera eskaini zien; bide batez, Espainian hortik aurrera, eritmo motelean izan bazen ere, hezkuntza zabaldu eta hobetzeko nahia gauzatu hasiko zen. Institutioaren sorrerak, lehen aipatutako pentsamendu katoliko eta tradizionalaren aurrean, kutsu liberala erakusten zuen pentsamendu mota baten garapena ordezkatu zuen.

XX. mendean hasiera erabakiorra izan zen hezkuntzaren egoeraren hobekuntzarako; esanguratsua izan zen Instrukzio eta Arte Ederretako Ministerioaren sorrera, hezkuntza erreformarako ekintza ugari aurrera eramatearen arduraduna izan baitzen. Ekintza horietako askotan instituzionisten aldarrikapenaren eragina oso erraz antzeman zitekeen, eta eragin hori oraindik ere esanguratsua bihurtu zen 1907. urtetik aurrera Institutioa politika arloan murgildu zenean.

Aurreko lehenengoan aipatu ditugun gertakizunak zirela eta, nahikoa erraz antzeman daiteke ordurarte hezkuntza arloan erabateko kontrola erakutsi zuen Elizak mehatxu handizat kontsideratu zuela Institutioa eta pentsamendu liberalaren hedapena, horrek arrisku larriak kokatzen baitzuten lehenengo aipaturiko balore katoliko eta tradizionalak, eta batez ere Elizaren beraren boterea; horren ondorioz, Institutioaren kontrako etsai amorratu agertu zen.

Irakaskuntzaren Institutio Librea, hezkuntzaren arloari begira, aldaketaren haziak landatzen hasi zen; hazi horiek, loratze prozesuan zehar, oztopo ugari aurkitu zuten, baina loraldiaren unerik adierazgarriena eta distiratsuenak Bigarren Errepublikaren aldarrikapenarekin aurkitu zuten.

Aldarrikapen horren inguruan, eta batez ere Elizak ordurarte erakutsitako hezkuntzarekiko kontrola kontuan hartuz, adierazi behar da errepublikanoen artean gehiengo laikoa zela; beraien planteamendu nagusietako bat Eliza eta Estatua bereiztea zen. Horren ondorioz, garai horretan bi erakunde horien arteko tentsioak ugariak izan ziren; horrekin lotuta, Manuel Azañak 1931ko urriaren 13an esandako hitzak oso adierazgarriak izan ziren, horien bidez Espainiak katolikoa izateari utzi ziola aldarrikatu baitzuen.

Errepublikaren lehenengo biurtekoa izan zen azpimarragarriena erreforme begira, horretan aurrera eraman baitziren gehienak; erreforma ho-

riek Estatu konfesionalaren bukaera suposatu nahi zuten. Horien artean, 1933. urteko Kongregazio Legea izan zen esanguratsuena, eskola erlijiosoen bukaera ekartzen baitzuen, horiek 1932-33. ikasturtearen amaieran atek itxi behar zituztela adieraziz. Hala ere, 1933. urteko hauteskundeetan kontserbadoreek garaipena eskuratu zuten, itxiera hori ez zen gauzatu.

1936. urteko hauteskundeetan Fronte Popularrak lortutako garaipenarekin berriro ere Errepublikaren lehenengo biurtekoan hasitakoarekin jarraitzea zen helburua, baina beharrezkoa zen arreta eta kontu handiz jokatzeari, une hartan Errepublikaren egoera nahiko ahulduta agertzen baitzen.

Bigarren Errepublikak ordezkaturako erreformak Espainiako botere-sektore batzuen etsakeria piztu zuen: oligarkia ekonomikoak Estatuaren boteretik gero eta urrutiago sentitzen ziren, eta faszismoaren bidea eta ejerzitoaren laguntza bilatzea erabaki zuten; azkenean, etsakeri sentimendu horiek guztiek 1936ko guda zibileruntzko bidea ekarri zuten. Gudak bertan behera utzi zituen lehengo garaian martxan jarritako erreforma guztiak; hezkuntza egoeran tunelaren bukaeran antzematen hasten zen itxaropen argitxo hura itzali egin zen, berriro ere erabateko iluntasunean murgilduaraziz. 1939an, Indar Nazionalen garaipenarekin, Errepublika desagertu egin zen. Horren desagertzearekin batera gauza asko desagertu ziren, batez ere hezkuntza egoeraren hobekuntzari begira jarritako ilusioak eta berrikuntzak.

Errepublika desagerturik, Elizak galdutako eremua berreskuratzeko aukera eduki zuen, galtzen hasiak ziren balore tradizionalen berreskurapenerako lanari berehalak ekin. Bigarren Errepublika izan zen aipaturiko balore horien galeraren errudun nagusia, eta horren ondorioz erabat beharrezkoa zen Errepublika kutsua erakutsi zezakeen edozein elementuren depurazioa aurrera eramatea.

Beraz, aurretik esandakoa laburbilduz, oso azpimarragarria da jorratu dugun prozesu horretan guztian zehar Elizak jokatutako papera eta erakutsitako boterea; horixe izan zen guda irabazi ondorengo nazional-katolizismoaren planteamendua: tradizio humanista, liberal eta erreformizatzailea ezabatze nahia, irakaskuntza publikoa erabat baztertzeari, kutsu laizistaren gune moduan kontsideratzen baitzuten.

Horiek izan ziren Frankismoaren hezkuntza-egoera ordezkatu zuten ezaugarriak, eta hezkuntza egoera hori modu egokian konfiguratu ahal izateko, lehen esan bezala, Errepublika garaiko maixuak baztertuak izan behar zuten.

1953. urtean Estatu espainiarrak eta Vatikanok sinatutako konkordatuak hezkuntza arloan monopolio katolikoa bermatu zuen; Estatuak ikasketak planetan erlijioa derrigorrezkoa izatea ziurtatu zuen eta Eliza fedea, ohi-tura egokiak eta erlijioaren irakaskuntzaz arduratu zen.

Jasotze-data: 2008/3/15

Onartze-data: 2008/4/23

The Second Spanish Republic was proclaimed on 14th April 1931. Although this period represented significant general changes in Spain, many of them were specifically reflected in the educational panorama. From its creation, the Second Republic embarked upon a programme involving total reform of the education system. Its representative axes were as follows: building schools, setting up a single system composed of three cycles, providing a boost from active and participative pedagogy and proclamation of secular teaching.

In order to analyse the basic aspects of actions carried out during the Second Republic, it will be essential to refer to the emergence of the Free Teaching Institution at the end of the 19th century, given that this Institution planted the seeds which later flowered during the time of the Republic.

After referring to the emergence of the aforementioned Institution, moving forward into the 20th century, Spain was ruled by a dictatorship before the Republic was proclaimed: the dictatorship of general Primo de Rivera. Following this period, with the aforementioned proclamation of the Second Republic in 1931, an important renovation began in the educational panorama, particularly from 1931 to 1933. This renovation sparked hope for the future.

The Second Republic lasted until 1939, and its development process involved travelling a long road littered with good intentions and obstacles. Unfortunately, the aforementioned spark of hope could not be kept alight for long, given that the Spanish Civil War and above all the winning side, did everything it could to extinguish it, throwing Spain and its educational panorama back into darkness.

Keywords: *Second Republic. Church. Education. Teaching.*

La Segunda República Española se proclamó el 14 de abril de 1931. Si bien dicha época supuso cambios significativos en España, muchos de ellos se reflejaron especialmente en el panorama educativo. Desde su nacimiento la Segunda República vino acompañada de un programa que supondría una total reforma del sistema educativo; los ejes representativos de la misma eran los siguientes: construcción de escuelas, establecimiento de un sistema único compuesto por tres ciclos, impulso de una pedagogía activa y participativa y proclamación de una enseñanza de carácter laico.

Para poder analizar las pautas de actuación desarrolladas en la Segunda República, resultará indispensable hacer referencia al surgimiento a finales del siglo XIX de la Institución Libre de Enseñanza, puesto que dicha Institución plantó las semillas que posteriormente mostraron su verdadero florecimiento en la República.

Tras hacer referencia al surgimiento de la citada Institución, adentrándonos ya en el siglo xx, España vivió una época de dictadura anterior a la proclamación de la República: la dictadura del general Primo de Rivera. Superada dicha época, con la anteriormente señalada proclamación de la Segunda República en 1931 comenzaría una importante renovación en el panorama educativo, sobre todo en el bienio de 1931 a 1933, renovación que supuso encender la luz de la ilusión.

La Segunda República llegó hasta el año 1939, debiendo recorrer en su proceso de desarrollo un largo camino plagado tanto de buenas intenciones como de obstáculos. Desgraciadamente, esa luz anteriormente citada no pudo mantenerse encendida durante mucho tiempo, puesto que la guerra civil, y sobre todo los vencedores de la misma, hicieron todo lo posible por apagarla, sumiendo nuevamente en la oscuridad a España y a su panorama educativo.

Palabras clave: Segunda República. Iglesia. Educación. Enseñanza.

La Seconde République Espagnole a été proclamée le 14 avril 1931. Même si cette époque a supposé de profonds changements en Espagne, nombre d'entre eux sont particulièrement reflétés dans le panorama éducatif. Depuis sa naissance, la Seconde République a été accompagnée d'un programme qui devait supposer une réforme complète du système éducatif, dont les axes représentatifs étaient les suivants : construction d'écoles, mise en place d'un système unique composé de trois cycles, encouragement d'une pédagogie active et participative et proclamation d'un enseignement à caractère laïc.

Pour pouvoir analyser les lignes d'action développées sous la Seconde République, il est indispensable de faire référence à l'apparition à la fin du XIX^{ème} de l'Institution d'Enseignement Libre, en effet cette Institution avait posé les bases de ce qui, plus tard, devait réellement se développer dans la République.

Après avoir fait référence à l'apparition de cette Institution, entrons dans le XX^{ème} siècle, l'Espagne a vécu une époque de dictature avant la proclamation de la République : la dictature du général Primo de Rivera. Passée cette époque, avec la proclamation de la Seconde République en 1931, devait commencer un important renouvellement du panorama éducatif sur les deux années, 1931 à 1933, renouvellement qui devait voir apparaître la lueur de l'illusion.

La Seconde République s'est maintenue jusqu'en 1939, devant parcourir pour son développement un long chemin jalonné aussi bien de belles intentions que d'embûches. Malheureusement, cette lueur, à laquelle nous avons fait référence ci-avant, n'a pu rester allumée bien longtemps, la guerre civile et surtout ceux qui en sont sortis vainqueurs ont fait tout ce qui était en leur pouvoir pour l'éteindre, plongeant à nouveau l'Espagne et son panorama éducatif dans l'obscurité.

Mots clé: Deuxième République. Eglise. Éducation. Enseignement.

BIBLIOGRAFIA

- BAHAMONDE, A. eta beste (2005): *Historia de España, siglo xx (1875-1939)*. Madrid: Cátedra.
- Boletín de la Institución Libre de Enseñanza* (1880). 5. zbk.
- Colección Legislativa de Instrucción Pública* (1931). Madrid.
- DÍAZ DE LAGUARDIA, E. (1988): *Evolución y desarrollo de la enseñanza media en España de 1875 a 1930. Un conflicto político-pedagógico*. Madrid: MEC-CIDE.
- IGLESIAS, M.A. (2006): *Maestros de la República, los otros santos, los otros mártires*. Madrid: La esfera de los libros.
- JIMÉNEZ-LANDI, A. (1976): «La Institución Libre de Enseñanza en sus coordenadas pedagógicas». *Revista de Educación*, 243. zbk, 17-20.
- LÁZARO FLORES, E. (1975): «Historia de las construcciones escolares en España». *Revista de Educación*, 240. zbk, 114-127.
- PÉREZ GALÁN, M. (1975): *La enseñanza en la Segunda República Española*. Madrid: Cuadernos para el diálogo, 5. zbk, 45-47.
- PUELLES BENÍTEZ, M. (1991): *Educación e ideología en la España Contemporánea*. Barcelona: Labor.
- RUBIO LLORENTE, F. (1974): «La política educativa». *La España de los años 70*. Madrid: Alianza.
- ZULUETA, L. (1915): «Lo que nos deja», in *Boletín de la Institución Libre de Enseñanza*, 5. zbk.

ERANSKINAK

Instrukzio Publikoko Ministro Zerrenda (1900-1939)

GOIAN AIPATUTAKO DATA HORIEN ARTEAN GARAI NAGUSI HAUEK BEREIZI BEHAR DITUGU:					
— 1900-1902: María Cristina de HABSBURGO-LORENA Erreginaren garaia. — 1902-1923: Alfonso XIII Erregearen garaia. — 1923-1930: Primo de Riveraren Diktadura garaia. — 1931-1939: Bigarren Errepublikaren garaia					
Gobernua	Hasiera data	Bukaera data	Instrukzio publikoko ministroa	Hasiera data	Bukaera data
AZCÁRRAGA PALMEROK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1900eko urria	1901eko martxo	Antonio GARCÍA ALIX	1900, apirilak 19	1901, martxoak 6
Práxedes Mateo SAGASTAK ordezkatutako gobernu liberala	1902, maiatzak 17	1902, abenduak 4	Álvaro de FIGUEROA Y TORRES, ROMANONES kondea	1901, martxoak 6	1902, abenduak 4
Francisco SILVELAK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1902, abenduak 4	1903, uztailak 20	Manuel ALLENDESALAZAR MUÑOZ	1902, abenduak 4	1903, uztailak 19
Raimundo FERNÁNDEZ VILLAVERDEK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1903, uztailak 20	1903, abenduak 5	Gabino BUGALLAL ARAUJO	1903, uztailak 19	1903, abenduak 5
Antonio MAURA MONTANERREK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1903, abenduak 5	1904, abenduak 16	Lorenzo DOMÍNGUEZ PASCUAL	1903, abenduak 5	1904, abenduak 16
Marcelo de AZCÁRRAGA PALMEROK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1904, abenduak 16	1905, urtarrilak 27	Juan de la CIERVA PEÑAFIEL	1904, abenduak 16	1905, apirilak 7
Raimundo FERNÁNDEZ VILLAVERDEK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1905, urtarrilak 27	1905, ekainak 23	Carlos María CORTEZO PRIETO	1905, apirilak 7	1905, ekainak 23
Eugenio MONTERO RÍOSEQ ordezkatutako gobernu liberala	1905, ekainak 23	1905, urriak 31	Andrés MELLADO FERNÁNDEZ	1905, ekainak 23	1905, urriak 30
	1905, urriak 31	1905, abenduak 1	Manuel EGUILIOR Y LLAGUNO, ALBOX kondea	1905, urriak 30	1905, abenduak 1
Segismundo MORET PRENDERGAST-ek ordezkatutako gobernu liberala	1905, abenduak 1	1906, uztailak 6	Vicente SANTAMARÍA DE PAREDES	1905, abenduak 1	1906, ekainak 10
			Alejandro SANMARTÍN Y SATRÚSTEGUI	1906, ekainak 10	1906, uztailak 12
José LÓPEZ DOMÍNGUEZEK ordezkatutako gobernu liberala	1906, uztailak 6	1906, azaroak 30	Amalio GIMENO CABAÑAS, JIMENO kondea	1906, uztailak 12	1906, azaroak 30
Segismundo MORET PRENDERGAST-ek ordezkatutako gobernu liberala	1906, azaroak 30	1906, abenduak 4	Pedro RODRÍGUEZ DE LA BORBOLLA	1906, azaroak 30	1906, abenduak 4
Antonio AGUILAR Y CORREA, LA VEGA DE ARMIJO-ren MARKESAK ordezkatutako gobernu liberala	1906, abenduak 4	1907, urtarrilak 25	Amalio GIMENO CABAÑAS, JIMENO kondea	1906, abenduak 4	1907, urtarrilak 25

Gobernua	Hasiera data	Bukaera data	Instrukzio publikoko ministroa	Hasiera data	Bukaera data
Antonio MAURA MONTANERREK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1907, urtarrilak 25	1909, urriak 21	Faustino RODRÍGUEZ SANPEDRO	1907, urtarrilak 25	1909, urriak 20
Segismundo MORET PRENDERGASTEK ordezkatutako gobernu liberala	1909, urriak 21	1910, otsailak 9	Antonio BARROSO CASTILLO	1909, urriak 20	1910, otsailak 9
José CANALEJAS y MÉNDEZEK ordezkatutako gobernu liberala	1910, otsailak 9	1911, urtarrilak 2	Álvaro de FIGUEROA Y TORRES, ROMANONES kondea	1910, otsailak 9	1910, ekainak 8
			Julio BURELL CUÉLLAR	1910, ekainak 8	1911, urtarrilak 2
José CANALEJAS y MÉNDEZEK ordezkatutako gobernu liberala	1911, urtarrilak 2	1911, apirilak 3	AMOS SALVADOR	1911, urtarrilak 2	1911, apirilak 3
	1911, apirilak 3	1912, azaroak 14	Amalio GIMENO CABAÑAS, JIMENO kondea	1911, apirilak 3	1912, martxoak 12
			Santiago ALBA	1912, martxoak 12	1912, azaroak 14
Álvaro de FIGUEROA Y TORRES, ROMANONES kondeak ordezkatutako gobernu liberala	1912, azaroak 14	1912, abenduak 31	Antonio LÓPEZ MUÑOZ, LÓPEZ MUÑOZ kondea	1912, abenduak 31	1913, ekainak 13
	1912, abenduak 31	1913, urriak 27	Joaquín RUIZ GIMÉNEZ	1913, ekainak 13	1913, urriak 27
Eduardo DATO IRADIERREK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1913, urriak 27	1915, abenduak 9	Francisco BERGAMÍN GARCÍA	1913, urriak 27	1914, abenduak 11
			Gabino BUGALLAL ARAUJO	1914, abenduak 11	1915, urtarrilak 4
			Esteban Miguel COLLANTES	1915, urtarrilak 4	1915, urriak 25
			Rafael ANDRADE NAVARRETE	1915, urriak 25	1915, abenduak 9
Álvaro de FIGUEROA Y TORRES, ROMANONES kondeak ordezkatutako gobernu liberala	1915, abenduak 9	1917, apirilak 20	Julio BURELL CUÉLLAR	1915, abenduak 9	1917, apirilak 19
Manuel GARCÍA PRIETOK ordezkatutako gobernu liberala	1917, apirilak 20	1917, ekainak 11	José FRANCO RODRÍGUEZ	1917, apirilak 19	1917, ekainak 11
Eduardo DATO IRADIERREK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1917, ekainak 11	1917, azaroak 3	Rafael ANDRADE NAVARRETE	1917, ekainak 11	1917, azaroak 3
Manuel GARCÍA PRIETOK ordezkatutako gobernu liberala	1917, azaroak 3	1918, martxoak 21	Felipe RODÉS y BALDRICH	1917, azaroak 3	1918ko martxoaren 2an
			SILVELA CASADO	1918, martxoak 2	1918, martxoak 22

Gobernua	Hasiera data	Bukaera data	Instrukzio publikoko ministroa	Hasiera data	Bukaera data
Antonio MAURA MONTANERREK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1918, martxoak 21	1918, azaroak 9	Santiago ALBA	1918, martxoak 22	1918, urriak 10
			Alvaro de FIGUEROA y TORRES, ROMANONES kondea	1918, urriak 10	1918, azaroak 9
Manuel GARCÍA PRIETOK ordezkatutako gobernu liberala	1918, azaroak 9	1918, abenduak 5	Julio BURELL	1918, azaroak 9	1918, abenduak 5
Álvaro de FIGUEROA Y TORRES, ROMANONES kondeak ordezkatutako gobernu liberala	1918, abenduak 5	1919, apirilak 15	Joaquín SALVATELLA y GISBERT	1918, abenduak 5	1919, apirilak 15
Antonio MAURA MONTANERREK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1919, apirilak 15	1919, uztailak 20	Cesar SILIÓ Y CORTÉS	1919, apirilak 15	1919, uztailak 20
Joaquín SÁNCHEZ TOCAK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1919, uztailak 20	1919, abenduak 12	José del PRADO Y PALACIO, REAL SITIO DE SAN ILDEFONSOEN Markesa	1919, uztailak 20	1919, abenduak 12
Manuel ALLENDESALAZAR y MUÑOZEK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1919, abenduak 12	1920, maiatzak 5	Natalio RIVAS SANTIAGO	1919, abenduak 12	1920, maiatzak 5
Eduardo DATO IRADIERREK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1920, maiatzak 5	1921, martxoak 12	Luis ESPADA GUNTÍN	1920, maiatzak 5	1920, irailak 1
			Vicente CABEZA DE VACA Y FERNÁNDEZ DE CÓRDOBA, Marqués de PORTAGO	1920, irailak 1	1920, abenduak 29
			Tomás MONTEJO RICA	1920, abenduak 29	1921, martxoak 13
Manuel ALLENDESALAZAR y MUÑOZEK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1921, martxoak 13	1921, abuztuak 14	Francisco APARICIO RUIZ	1921, martxoak 13	1921, abuztuak 14
Antonio MAURA MONTANERREK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1921, abuztuak 14	1922, martxoak 8	César SILIÓ Y CORTÉS	1921, abuztuak 14	1922, apirilak 1
José SÁNCHEZ GUERRAK ordezkatutako gobernu kontserbatzailea	1922, martxoak 8	1922, abenduak 7	Tomás MONTEJO RICA	1922, apirilak 1	1922, azaroak 8
			César SILIÓ Y CORTÉS	1922, azaroak 8	1922, abenduak 5
			Isidoro DE LA CIERVA Y PEÑAFIEL	1922, abenduak 5	1922, abenduak 7
Manuel GARCÍA PRIETOK ordezkatutako gobernu liberala	1922, abenduak 7	1923, azaroak 13	Joaquín SALVATELLA GISBERT	1922, abenduak 7	1923, azaroak 13

PRIMO DE RIVERA JENERALAREN DIKTADURA GARAIA					
Gobernua	Hasiera data	Bukaera data	Instrukzio publikoko ministroa	Hasiera data	Bukaera data
PRIMO DE RIVERAREN diktadura	1923, irailak 13	1930, urtarrilak 31	Eduardo CALLEJO DE LA CUESTA	1925, abenduak 4	1930, urtarrilak 31
			Jacobo FITZ-JAMES STUART Y FALCÓ	1930, urtarrilak 31	1930, otsailak 24
Dámaso BERENGUERREK ordezkatutako gobernua	1930, urtarrilak 31	1931, otsailak 19	Elías TORMO Y MONZÓ	1930, otsailak 24	1931, otsailak 19
Juan Bautista AZNAR Y CABANASEK ordezkatutako gobernua	1931, otsailak 19	1931, apirilak 14	José GASCÓN Y MARÍN	1931, otsailak 19	1931, apirilak 14
BIGAREN ERREPUBLIKAREN GARAIA					
Gobernua	Hasiera data	Bukaera data	Instrukzio publikoko ministroa	Hasiera data	Bukaera data
Niceto ALCALÁ-ZAMORA y TORRES	1931, apirilak 14	1931, urriak 14	Marcelino DOMINGO SANJUÁN	1931, apirilak 14	1931, abenduak 16
Manuel AZAÑA DÍAZ	1931, urriak 14	1931, abenduak 16			
	1931, abenduak 16	1933, ekainak 12	Fernando DE LOS RÍOS	1931, abenduak 16	1933, ekainak 12
	1933, ekainak 12	1933, irailak 12	Francisco José BARNES SALINAS	1933, ekainak 12	1933, irailak 12
Alejandro LERROUX GARCÍA	1933, irailak 12	1933, urriak 8	Domingo BARNÉS SALINAS	1933, irailak 12	1933, abenduak 16
Diego MARTÍNEZ BARRIO	1933, urriak 8	1933, abenduak 16			
Alejandro LERROUX GARCÍA	1933, abenduak 16	1934, martxoak 3	José PAREJA YÉBENES	1933, abenduak 16	1934, martxoak 3
	1934, martxoak 3	1934, apirilak 28	Salvador de MADARIAGA ROJO	1934, martxoak 3	1934, apirilak 28
Ricardo SAMPER IBÁÑEZ	1934, apirilak 28	1934, urriak 4	Filiberto VILLALOBOS GONZÁLEZ	1934, apirilak 28	1934, abenduak 29
Alejandro LERROUX GARCÍA	1934, urriak 4	1935, apirilak 3	Joaquín DUALDE GÓMEZ	1934, abenduak 29	1935, apirilak 3
	1935, apirilak 3	1935, maiatzak 6	Ramón PRIETO BANCES	1935, apirilak 3	1935, maiatzak 6
	1935, maiatzak 6	1935, irailak 25	Joaquín DUALDE GÓMEZ	1935, maiatzak 6	1935, irailak 25

Gobernua	Hasiera data	Bukaera data	Instrukzio publikoko ministroa	Hasiera data	Bukaera data
Joaquín CHAPAPRIETA TORREGROSA	1935, irailak 25	1935, urriak 29	Juan José ROCHA GARCÍA	1935, irailak 25	1935, urriak 29
	1935, urriak 29	1935, abenduak 14	Juan BARDAJÍ LÓPEZ	1935, urriak 29	1935, abenduak 14
Manuel PORTELA VALLADARES	1935, abenduak 14	1935, abenduak 30	Manuel BECERRA FERNÁNDEZ	1935, abenduak 14	1935, abenduak 30
	1935, abenduak 30	1936, otsailak 19	Filiberto VILLALOBOS GONZÁLEZ	1935, abenduak 30	1936, otsailak 19
Manuel AZAÑA DÍAZ	1936, otsailak 19	1936, apirilak 7	Marcelino DOMINGO SANJUÁN	1936, otsailak 19	1936, maiatzak 13
	1936, apirilak 7	1936, maiatzak 10			
Augusto BARCÍA TRELLES	1936, maiatzak 10	1936, maiatzak 13			
Santiago CASARES QUIROGA	1936, maiatzak 13	1936, uztailak 19	Francisco José BARNES SALINAS	1936, maiatzak 13	1936, irailak 4
José GIRAL PEREIRA	1936, uztailak 19	1936, irailak 4			
Francisco LARGO CABALLERO	1936, irailak 4	1936, azaroak 4	Jesús HERNÁNDEZ TOMÁS	1936, irailak 4	1938, apirilak 5
	1936, azaroak 4	1937, maiatzak 17			
Juán NEGRÍN LÓPEZ	1937, maiatzak 17	1938, apirilak 5			
	1938, apirilak 5	1939, apirilak 1	Segundo BLANCO GONZÁLEZ	1938, apirilak 5	1939, apirilak 1